

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

CURSOS DE VERANO  
UDAKO IKASTAROAK

# Landa inguruneko haurren neurorrehabilitazioa

19 - 24 IRAILA

Polideportivo OILARTEGI de Lesaka

■ Osasun Zientziak

🗨️ Gazteleraz

📄 Kredituak: 0.5

📋 25 plazas

€ 15

🎓 18 ordu

📍 Polideportivo OILARTEGI de Lesaka

📄 Matrikula zabalik

📅 2022ko irailaaren 15a arte

Ikastaroan, Nafarroako landa eremuan egiten diren neurorrehabilitazio jardueren berri eman eta haien garapenean aurreratu nahi dugu. Bortzirietan mintzatuko gara gure esperientziaz, Nafarroaren iparraldean.

Horretarako, neurogarapeneko nahasmenduak dituzten haurrak zaintzearen Nafarroako Gobernuak emandako jarraibideak landuko ditugu lau egunez, eta haurren familiakoek halako haurren senitartekoentzako elkarteen bidez bilatu ohi dituzten jarduera osagarriak ere bai.

Haur txiki-txikiak tratatzeko etapatik hasiko gara, 0 eta 3 urte bitarteko haurretatik, eta, gero, adinean gora egingen dugu: haur koxkorragoak, lehen eta bigarren hezkuntzakoak eta, hala, heldu bihurtzeko trantsizio etaparaino. Desgaitasun motorrekin lotutako arazoez mintzatuko gara, bai eta desgaitasun intelektualaz eta patologiez ere, ikaskuntzaren nahasmenduaz eta arreta defizitaz besteak beste.

Hizlariak administrazio publikoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte ongizatearen arloko langileak izanen dira, eta entitate pribatuetako profesionalak ere bai; batzuk halako nahasmenduak dituzten haurren senitartekoen elkarreetakoak; beste batzuk, ez.

Neurogarapeneko nahasmenduak dituzten haurrak tratatzeko berritasunak ezagutzera eman nahi ditugu, bai esku hartzeko teknika berriak bai halako nahasmenduak detektatzeko, baloratzeko eta tratatzeko protokoloen egokitasuna.

Azkenik, haurren patologia mota horien diagnosiaren eta tratamenduaren zenbait alderdiren berri eman nahi dugu, eta horri buruzko ikerketa bultzatu.

## **NORENTZAT**

Osasunaren arloko profesional eta ikasleentzat (fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta neuropsikologoentzat), hezkuntzako profesionalentzat, pedagogo terapeutikoentzat, orientatzaileentzat, kiroltako monitoreentzat eta neurogarapeneko nahasmenduak dituzten seme-alaben tratamenduan proaktiboki diharduten senitartekoentzat

## **HELBURUAK**

Gizarte Politikako Departamentuak arreta goiztiarrerako proposatu dituen antolaketa-aldaketak ezagutzera ematea

Landa eremuko 0-3 eta 3-6 urte bitarteko haurren errehabilitazioa jorratzea

Neurogarapeneko nahasmenduen tratamendu integrala planifikatzea

Neurorrehabilitazioko teknika berriak: ur azpiko hidroterapia, unibertsitateko berrikuntza proiektua

## **IKASTAROAREN ZUZENDARIA**

Ana M<sup>a</sup> Insausti Serrano doktorea, medikua eta NUPEko Osasun Zientzien Saileko Anatomia irakaslea.

Natalia Domínguez Sanz, fisioterapeuta eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Saileko irakaslea.

Belén Compains Beaumont doktorea, Lesakako Osasunbideko zentroko pediatra.

## **ASTELEHENA 19 IRAILA**

16:00-18:00 Hitzaldia

### **0-3 urte bitarteko haurren neurorrehabilitazioa. Fase berri bat fisioterapiarentzat**

Jesús Vaca, Nafarroako Gobernu Arreta Goiztiarreko Zentroaren zuzendaria

18:00-20:00 Hidroterapia tailerra

### **Hidroterapia 0-3 urte bitarteko haurrentzat. Nola koordinatu aretoko terapiarekin**

Cristina Mendive Santos

Andrea Domínguez Basarte

## **ASTEAZKENA 21 IRAILA**

16:00-18:00 Hitzaldia / Tailerra

### **Eskolako haurren neurorrehabilitazioa**

Marta Redondas, CREENAko motorikoen modulua

Elena Roldan Arcelus, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko haurren errehabilitazioko medikua

18:00-20:00 Aretoko errehabilitazioa

### **3-6 urte bitarteko haurren errehabilitazioa**

Maddi Urrea Albizu

Ainara Orabengoa Elizondo

## **OSTIRALA 23 IRAILA**

16:00-20:00 Hitzaldia

### **Neurogarapeneko nahasmenduen tratamendu integrala**

Mercedes Mendiburu, neuropsikologoa

Ane Pacheco, logopeda

Konektoma proiektua

## LARUNBATA 24 IRAILA

9:00-10:00 Hitzaldia

**Neurorrehabilitazioko teknika berriak: ur azpiko hidroterapia, unibertsitateko berrikuntza proiektua**

Natalia Domínguez Sanz, fisioterapeuta eta ur azpiko hidroterapiako aditua

Ana M. Insausti Serrano, medikua

Miguel Carabantes Rodríguez, urpeko igeriketako irakaslea, FEDAS-CMAS 2 estrellas (IN2E)

10:00-13:00 Tailerra igerilekuan

**Ur azpiko hidroterapia, neurorrehabilitazio modu berri bat**

Natalia Domínguez Sanz

Miguel Carabantes Rodríguez

## ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Lesakako Osasun Zentroa (Osasunbidea)





## **LAGUNTZAILEA**

Lesakako Udala

Bortzirietako familien Guztiok elkarte